

steilasen informazio elektronikoa • 2020/04/02

**ERTEAK APLIKATZEN DITUZTEN 0-3KO ZENTROEK DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK JASOTZEN DITUZTE**

Koronabirusaren krisia hasi zenetik, STEILASEk salatu du ikastetxe batzuk ERTEak aplikatzen ari zaizkiela haur hezkuntzako lehen zikloan lan egiten duten langileei. STEILASEk lehen egunetik eskatu die patronalei eta zentroetako titularrei ziklo horretako langileek telelana egin dezaten, zentro pribatu gehienetan eta Haurreskolen Partzuergoan egiten ari diren bezala.

Horrez gain, martxoaren 30etik aurrera, martxoaren 29ko 10/2020 Lege Dekretuak xedatutakoa betez, telelana egin ezin duten 0-3 zentroetako langile guztiek nahitaezko baimen ordaindua hartu behar dute, eta alarma-aldia amaitu ondoren eta abenduaren 31 baino lehen berreskuratu behar dituzte lanordua. Hala eta guztiz ere, zentro batzuk aste honetan hasten ari dira 0-3 bitarteko langileei eragiten dien ERTE bat egiten. Ez dakigu lan agintaritzak espediente berri horiek onartuko dituen edo legez kanpokotzat joko dituen.

Diru-gaguntza publiko handiak jasotzen dituzten ikastetxe batzuen jarduteko modu hori salatzen du STEILASEk, eta gaur bertan argitaratu dute Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ikastetxeen zerrenda eta emandako kopuruak hemen kontsultatu: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/04/2001777a.shtml>).

STEILASEk berriz ere eskatzen die Itundutako Ikastetxe pribatuetako patronalei, Kristau Eskola, AICE-IZEA, Partaide Ikastolen Elkarteak..., eta estatuko hitzarmena aplikatzen duten haur-zentroetako titularrei:

- Langileen legezko ordezkariekin edo plantillarekin adostea salbuespeneko egoera horretan ezarri beharreko neurriak.
- Akordioa posible ez bada, bete dezatela, gutxienez, legeak markatzen duena: telelana ezarriz; ezinezkoa den lanpostuetan martxoaren 30etik aurrera nahitaezko baimen ordaindua hartzea; kasu guztietan hitzarmen bakoitzak markatzen duen Aste Santuko oporrak errespetatzea.
- Lehendik ERTE batean sartuta dauden langileak dituzten enpresetan, langabezia-prestazioa osatzeko ohiko diru-sarreraren % 100 izaten jarrairai dezaten.

*Hezkuntzan STEILAS!*[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eusBizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eusGipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eusNafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus